

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abenduaren 4a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Araitz-Betelu • Ekitaldi ugari izanen dira datorren astean, Kultur Astean.

Alfonso Pascal • «Bianako Printzeak okerreko bidea hartu zuen».



Nafarren uzta ere bada Durangon

Urtero legez, nafarren uzta ere izanen da Durangoko 33. Liburu eta Disko Azokan. Batzuek Nafarroan euskal literaturaren urtea izan dela dioten bitartean, beste batzuk ez dira hain baikorrak, itxura bai baina probetxurik gabeko mugimendua dela diote. Dena dela, Pamiela, Igela, Txalaparta eta Susa argitaletxeak han izanen dira urtean zehar ateratakoa erakusteko.

Lizarra •

Erromatar goldeetatik informatikara

Lizarrerrian nekazaritzak izan duen bilakaera jaso duen erakusketa ikusgai da

Azken ehun urteotan, bertze gauza aunitzen gisa, nekazaritzak ere aldaketa nabarmenak izan ditu. Egunotan bilakaera hori ikus daiteke, erakusketa batean azalduz, Lizarrerriko herrixketan.



Hainbat lanabes ikus daitezke erakusketan, eta, horiez gain, panel informatiboen eta bideo baten bidez nekazaritzaren mundua ezagutarazten da. • ARTXIBOKOA

N'1898-1998. ERROMATAR GOLDEETATIK informatikara; nekazaritzaren mende bat Lizarrerrian' da egunotan Lizarrako hainbat herritan ikusgai izan den erakusketa. Jadanik Ega Ibaia zeharkatzen duen hirian ikusi ahal izan dira gaur egun nekazaritzan zein abeltzaintzan erabiltzen diren azken teknologiak; bai eta gure arbasoen lanaren eta bizimoduaren lekuko izan ziren bertzelako lan tresnak ere. Abenduaren 10etik 13ra, Vianan izanen dira ikusgai lanabes horiek guztiak, eta ondotik, Sartagudan, Arizalan, Zudairen eta Urantzian. Bertara hurbiltzen denak hainbat eta hainbat pieza

etnografiko ikus ditzake. Beste batzuen artean, hauek aurkituko ditu: zenbait gairen inguruko panel informatiboak, nekazari eta artzainen antzinako zein gaur egungo bizimodua erakusten duten argazkiak, landa turismoaren bilakaera... Halaber, erakusketa laguntzen duen bideoa ikus daiteke. Bertan, lurra lantzeko prozesua azaltzen da, eta izan zuen hazkuntza. Halaber,

artzainen bizitzaren inguruan ere erreportaiak sakona ikus daiteke. Erakusketa gaika sailkatua dago, orotara hamabi izenburu nagusi ageri direla. Aurreneko panelean Lizarrerriko anitzasunaren erakusgarri diren hainbat datu aipatzen dira. Ezberdintasun geografikoak zein bioklimatikoak goraiatzen dira. Gauzak horrela, Lizarrerriko 67 herriek 1.996,7 kilometro koadroko ere-

mua hartzen dute baina hainbat azpisailetan banaturik. Bigarren panelean, berriz, biztanleen bilakaera azaltzen da, eta jarraian migrazioaren inguruko azterketa sakona ageri da. Urteetan biztanleen mugimenduak nekazaritza guneeetatik hirirako norabidea izan badu ere, gaur egun kontrako joera ere badagoela nabarmendu daiteke; betiere, arrazoiak kasu batean

eta bertzean ezberdinak direla kontuan hartuta. Antzinakotasunaren lekuko diren hainbat tresna ere ikus daitezke erakusketan. Esaterako, garai neolitikokoan lurra lantzeko erabiltzen ziren sukarrizko igitaien hortzak eta eskuzko errotak, eta erromatar garaiko goldeak. Denborak aurrera egin ahala agertu ziren bertzelako tresnak ere ikus daitezke: laiak, harrimugerezko eulzkafluak, igitaiak eta segak. Tramankulu horiek guztiak kronologikoki sailkatuta daude eta garai bakoitzean lurra nola lantzen zen agertzen dute.

Haatik, historiari begirada bat eman ostean, erakusketan gaur egun punta-puntako teknologien berri ere ematen da. Adituen arabera, etorkizunerako bidearen errentagarritasuna hiru zutabetan datza: jarduera moten aniztasuna, azpiegituren zaharberitzea eta ekoizpen bideen garapena. Jarduera moten aniztasunari dagokionez, Lizarrerrian ideia aunitz gauzatzeko aukera dagoela erran dute adituek; esaterako, hazkuntza ekologikoa eta baratzezaintza, nekazaritzari dagokionez; abere berrien ezarkuntza, abeltzaintzari dagokionez (adibidez, ostrukak eta bufalo emeak); eta, azkenik, aurrekoa osatzeko bertzelako ekintzak: landa turismoa eta artisautzaren inguruko jarduerak, kasu.

→ Kristina Berasain

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Komikigileek asmatu zituzten. Bat-batean pertsonaia batek hatza burura eraman eta irribarre egiten zuen, eta egileak, dena izorratuko zukeen «ideia bat daukat» idatzi beharrean bonbila eder bat jartzen zuen pertsonaiaren kaskezurraren gainean.

Geroztik, eta gaur egungo pilak eta chipak leku handia kendu dieten arren, ideiak eta bonbilak oso lotuak egon dira. Gehienetan baikor sentiarazten gaitu, ideia bat izan dugula eta gauzek hobera egiten dutela begitantzen zaigu. Erre dena erre daiteke, baina gogoak ere asko egiten du.

Egunkaria deitzen diogun paper sorta triste horietan gero eta zabalduago dago azken orrialdeetako albiste laburren saila. Gu baino jotago edota izorratuago daudenen ibilera herreren berri izateak kontsolatu egiten gaitu batzuetan, egural-

56.000 bonbila

diaren gaia saihesteko aukera ematen bestetan. Sail horretan (zergatik horretan?) oraindik orain agertu da Iruñeko Udalak berrogeita hamasei mila bonbila zintzilikatuko dituela hiriko karrietan. Zer esan nahi du horrek? Iruñeko Udalak berrogeita hamasei mila ideia dituela? Ez dut uste. Horrek esan nahiko du Eguberriak iristear daudela. Eta askori, alkate eta zinegotzietan bezalaxe, ideia bikaina iruditzen zaie.

Berrogeita hamasei mila ideia soberasko direla esanen nuke, baina bi, behintzat, bai, bi ideia baditu udal honek. Lehenak lur azpian auto ugari sar daitekeela pentsarazten die; bigarrenak alaiak garela eta festa kontuan gu bezalakorik ez dagoela, zerbait antolatzeko orduan ez diogula diruari begiratzen. Ideia gutxi izanagatik ikuskizunak merezi badu konforme egon behar genuke.

Zergatik geratu horretan, ordea? Nik, ene apailean, beste zerbait gaineratu nahi nioke ideia nagusiari. Bandera bat egitea pentsatu beharko lukete, edozein ospakizunetan atera litekeen koloreko argiz egindako bandera propiala. Motiboak, bi: pañuelo gorriak eta izarrak. Hau da, ari-maren egutegia: uda eta negua, beroa eta hotza, lurra eta zerua, alfa eta omega.

Gainera, hartara, ilusioa berpiztuko litzaiguke. Izar garaia amaitu eta pañuelo festarako zein gutxi falta den ohartzearrekin jarraitzeko indarrak aterako genituzke.

Horrelakoei eskerrak joaten dira egunak, ton-tamentean, emeki, ohartu gabe. Pañuelotik izarrrera, izarretik pañuelora. Zer moduz? Hementxe, hainbestean, badakizu... hil arte bizi. Osasuna ona den bitartean...

Erronkari

Kultur Ziklo oparoa antolatu da datozen asteetarako

ERRONKARIKO EUSKARA ZERBITZUAK Kultur Ziklo oparoa antolatu du, ekitaldi desberdinez osatua, hurrengo asteetarako bailarako hainbat herritan. Izabako museoa Erronkariako Armarriak erakusketa zabaldu da. Bien bitartean, Urzainkin bihar herriko etxe eta mendien euskal izenez mintzatuko da Mikel Belasko ikertzailea. Hitzaldi hori udal aretoan izanen da, arratsaldeko 8:30etan hasita.

Hurrengo ekitaldia Burgin egingo da, heldu den abenduaren 26an. Trokolo antzerki taldeak *Zalapartaka* euskaraz egindako antzezlan eskainiko du 18:00etan Udal aretoan. Biharamunean *Oz-eko aztia* film estatu batuar ezaguna pantailaratuko dute Erronkariako Naturaren Interpretazio Zentroan 18:00etan.

Dena den, ekitaldirik deigarriena kultur zikloaren amaierarako utzi dute antolatzaileek. Abenduaren 27an ere, batna Uztarrozen, Ruper Ordorika abeslariaren kantaldia izanen da. Abeslari oñatiarrak elizan kantatuko du arratsaldeko 20:30etatik aurrera. Kultur zikloa ilbeltzaren 10ean bukatuko da. Egun horretan *Wilow* pelikula eskainiko da museoa 18:00etan.

→ Uxue Zabaleta

Araitz-Betelu ●

Ekitaldi ugari Kultur Astean

Euskara Batzordeak antolaturik, astelehenean hasiko da

Hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, kontzertuak... denetarik izango da hamaikagarren urtez ospatuko den Kultur Astean. Egunik garrantzitsuena, Bailarako Eguna deitzen dena, asteartean ospatuko da.



Bide Ertzean taldeak joko du Aste Kulturalean. ● MONIKA DEL VALLE

ARAITZ-BETELUKO KIDEA DEN Kontxi Arrazitiok dioenez, «Euskara Batzordea sortu zen une beretik hasi ginen Kultur Astea antolatzen. Urte guztiko ekitaldirik garrantzitsuena dela argi dago, baina hala ere, ez dugu aktibitate guztia aste honetara mugatu nahi». Urteen poderioz, kultur asteak hainbat aldaketa izan ditu. Esaterako, lehen Araitz-Beteluko Eguna kultur astetik kanpo ospatu ohi zen. Duela urte batzuk, ordea, asteeko azken egunean ospa zitekeela bururatu zitzaizen, baina bezperako gau-pasak bere lana ongi betetzen zuenez, askok lo igarotzen omen zuten igande guztia, eta ondorioz, ez zen nahi adina jende biltzen

Bailarako Egunean. Horrela, jaia aurreratzea otu zitzaizen. Aurten, Ama Birjinaren Egunean ospatuko da Uztegin. Goizean, artisauek izango dira plazan. Eguerdian, herri bazkaria izanen da Beteluko Zigari Elkartean. Baina ekitaldiak astelehenarekin hasiko dira. Gus Marionetas taldearen emanaldia izanen da lehena, 18:00etan, Beteluko Indianoetxean. Historian protagonismoa izan duten emakumez ariko dira, Intzako Elkartean, Ana Diez de Ure eta Pako Roda historialariak.

Diapositibak ere izanen dira, ostegun arratseko 21:30etan, Arribeko Elorri elkartearen, *Alegiazko herrialdea* izeneko muntai eskaini asmo baitu Gaintzan bizi den Felipe Uriarte mendigoizaleak.

→ Urko Aristi

Ostiralean kirola izanen da mintzagai, *Euskal selekzioa, bai?* izeneko eztabaida iragarri baitute. Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldekoak (ESAIT) bertan izanen dira.

Larunbatean, bezperan entzule izandakoak kirolean jarri nahi dituzte *Mailope* herri aldizkariak. *Mailope* laistera izeneko ekitaldian, Madoztik abiatu eta Atalluraino joango dira, lasterka, *Mailope*-ren alde azaldu nahi duten guztiak. Horretarako, aurreko egunetan hainbat erakunde, udal eta elkarterik kilometro bana erosteko eskaria egin zaie. Ondoren, Atallun, afaria, lehenik, eta Asteari amaiera emango dion kontzertua ondoren. Bide Ertzean taldea ariko da.



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Haurrentzako guneen garrantzia

Haurrentzako funtsezko diren jolas parkeak aztertu ditu **Guaixe** Sakanako hilabetekariak bere azken zenbakian: «Herrikideon bizi kalitatea hobetzeko oinarritzko azpiegiturak dira jolas parkeak. Herri baten bizi kalitatearen adierazgarri dira. Baina, era berean, guztiz beharrezkoa da haurrendako jolas toki hauetan arriskurik ez izatea. Hau da, errepidetik babestuak egoteaz gain, tresnariaren zaintzea ezinbestekoa da. Mantentimendu ezaren adibide tamalgarriak ikus daitezke Altsasun. Parkeak izateaz gain bada udalak ezin ahaztu dezakeen eginkizuna: zaindu eta konpontzea».

Amaia Amilibia kazetariak sinatu **Guaixe**ko erreportaiak haurren garapenean jolas parkeek duten garrantzia azpimarratzen du: «Kulunkatzeko zabuak, txirristak, zubi mugikorak, zaldiak, sokak, etxetxekoak, zintzilikatzeko tresnak... izugarri onak dira haur txikien gorputz garapenerako. Haurren sikomotritzitatea bizkortzeaz gain, jolas parkeek badute, bestalde, funtzio anitz: haurren arteko sozializazioa eta gurasoen arteko harremanak sendotzea ahalbideratzen baitute herriko parkeek. Beraz, bi hitzetan esanda, herri baten azpiegituren artean

ezinbesteko tresneria dira haurrendako guneak».

«Azken urteotan Sakanako hainbat herritan jolas parke berriak paratu dituzte. Horien artean, aipagarriak ditugu azken aldian Arbizon edota Bakaikuko jolas toki berriak. Bestalde, parkerik ez dutenen artean egitasmo berri batzuk sortu dira. Altsasun, esaterako, bi jolas parke berri jarriko dituzte. Irurtzunen Gernika plazan egokituko dute parkea eta Etxarri-Aranatzen plazako zaharrak berriekin ordezkatzeko dituzte. Badira, ordea, beste herri batzuk jolas parkea egiteko egitasmorik ere ez dutenak».



ur dai aren mintzoa

Xabier Larraburu

7. linea eta amodioa

Neguko amodio zail batean buru belarri murgildurik nabil. Zaila eta, batez ere, nekoso. Billabesen nondik-norakoekin du erlazioa. Iruñean 15 ibilbide diferente egiten dituzten 15 billabesa-linea daude. Hoietatik 14k neri bost. Niretzat garrantzia duen linea bakarra 7a da. Hor aurkituko duzue gidari lanetan nire maiteñoa: neska-ilegorri-gidari-trebea. Autobus gidari batekin maitemintzeaz gain ibildibe luzeena egiten duenarekin maitemintzea suertatu zait neri. Nekoso da. Nekoso eta zaila. Baina, batez ere, nekoso. Alde zaharrea bizi arren, Txantrean hartzen dut bere lehendabiziko geltokian. Aldez aurretik ongi bustitako eta tolestutako bonobusa atera eta makiñan sartzen saiatzen naiz. Gidariak dagoeneko ongi ezagutzen nau eta asperenka bonobusa pikatzeko tresna ateratzen du. Estrategia honi esker luzatutako instant hori urrea da niretzat. Egunean zehar gogoan eramango dudana irudi sakratua mementu hortan bertan jasotzen baitut. Gero eseri egiten naiz Iruñeko auzo guztiak eta jende arrotz guztia pasatu arte. Txantreatik Antsoainera goaz. Hortik Marzelo Zelaieta etorbidea hartu eta Errotxapea igarota Sanduzelaira goaz. Maitea eta eserita nagoen tokiarenean jende harresi madarikatu bat dago beti. Hala ere gidariaren erretobisorean bere aurpegia ikusi dezaket, ezker eskuin begira beti, trafikokari so. Ispiluak inbentatu zituenari betiko eskerrak. Sanduzelaitik Donibane auzora igotzen gara. Hemen ematen du hiri erdiruntz abiatuko garela bainan ez. Hiri erdigunera sartzen ez den linea bakarra da hau. Donibanetik Ermitagañara goaz. Esan dizuet ba nekoso dela! Gero Mendebaldea eta aurrerago Barañain. Ia ordu bat betetzen dugu beti. Baina azkenean saria dator. Ateak ireki eta jende arrotz guztia badoa. Billabesan gu besterik ez gaude. Intimitate liluragarria. Ni mutu. Urduritasunarengatik noski. Berak, momentuaren arabera, jeitsi behingoz! -edo- zoaz pikutara!- esaten dit. Astuna ez izatearren jaisten naiz. Eta oinez bueltatzen naiz Alde Zaharrra. Ai! amodio zaila da hau, bainan, batez ere, nekoso.

Nafarren uzta Durangon

Bilduma oparoa aurkeztu dute editorial nafarrek gaur hasi eta astearte arte iraunen duen Durangoko Liburu Azokan

Nobedadeak zein berrargitarapenak eraman dituzte Nafarroako lau argitaletxeek 33. Durangoko Liburu eta Disko Azokara. Batzuek Nafarroan euskal literaturaren urtea izan dela dioten bitartean, besteak ez dira hain baikorrak, maiz itxura bai baina probetxurik gabeko mugimendua eragin duela diote.

Era berean, Gobernuak ateratakoea ere han izanen da. Testuak: Irene Arrizurieta


NAFARROAKO LAU ARGITALETXEAK —PAMELA, IGELA, TXALAPARTA eta SUSAK—, eta Gobernuko Argitalpen Fondaok urtean zehar argitaratutako liburuak 33. Durangoko Liburu eta Disko Azokaren erakuslehorra eraman dituzte aurten ere. Gaur hasi eta heldu den asteartera arte iraunen duen azokan, besteak beste, urtean zehar argitaratu diren 1560 liburu berri bistatu ahal izanen dira. Kopuru horretan literaturak izanen du bere txokoa, 215 titulu argitaratu baitira aurten. Horien artean izanen dira herrialdeko argitaletxeen lanak. Igelak bi klasiko eramanen ditu: Ernest Hemingwayren *Francis Macomber eta beste zenbait ipuin*, eta Guy de Maupassantren *Mari gizen eta beste zenbait ipuin*. Susa argitaletxeak Nafarroatik lau liburu eramanen ditu: Itxaro Bordaren *Orain* poesia liburua, Juanjo Olasagarren *Mandelaren Afrika*, Ez zaigu ahaztu Alberto Barandiaranena, eta Camembert helburu Jon Alonsorena. Txalapartak, aldiz, besteak beste: Maria Markotegiren *Izarratu*, Patziku Perurenaren *Etorrerakoak*, Esther Mugerza eta Amaia Elosegiren *Txirringaren ainean*, eta *Euskal idazleen ipuin erotikoak*. Pamela izanen da lauren artean berrikuntzak baino gehiago «antiguak» emanen dituen. Beste batzuen artean, han izanen dira: Patxi Salaberriren *Axularren historia*, Xamarren *Orhipean*, Aingeru Epaltza *Sorginkerien liburua*, eta Isidro Rikarteren *Desioen hiria*.

Argitaletxeon ustetan, aurtengo uzta aurreko urteakoen antzekoa da, hogueiren bat liburu berri. «Proporzio hori da hemengo argitaletxe koskorrek eman dezaketena eta urtero mantendu egiten da», dio Xabier Olarrak, Igela argitaletxe arduradunak. Patxi Larrion Nafarroan Susako ordezkariaren iritziz, mantendu ez ezik, gehiago eta hobe publikatu da: «Nafarroan euskal literaturaren urtea dela esan daiteke. Ikusi besterik ez da publikatu diren lanak eta egile berrien merkaturatzea».

Pernando Barrena Txalapartako kideak generoak eta gatak ere zabaldu direla nabaritu du: «Guztiz aberasgarria da. Azken urteotan ematen zuten euskal literaturaren probetxuzko zerbait egiteko eleberririk kaleratu behar zirela. Dena den, argitaletxeen aldetik esfortzu bat egiten ari da genero dibersifikazioaren alde eta horrek osatu egiten du panorama».

Durangoko kalentura

Aurten Nafarroan eskaintza handia bada ere, Txema Aranaz, Pamela argitaletxe berruaren ustez Durangok sortzen duen «liburu berriak atera behar diren kalentura arriskutsua da». Haren irudiko, beste gauza askotan bezala Madril kopianen ari dira. «Durango izan da euskal liburuaren zein diskoa-



OSKAR MONTERO

ren erreferentzia puntu, eta horretan jarraitu behar du. Baina liburudendetan aurkitzen ez zenuena han topatzeko berezitasuna desagertzen joan da, eta Durango eta liburudendetan artean kasik ez dago ezberdintasunik. Liburuak produktu bat bihurtzen ari da», dio. Zentzu horretan, kalitateak ez omen du garrantzirik eta gako lan berria mugitzea litzateke. «Durango urteko datarik garrantzitsuena da, literaturarako gustuko duen publikoaren aurrean bitartekaririk gabe jartzeko kasik aukera bakarria delako, baina merkataritza interesak besteari gailentzen ari zaizkio eta amorrua ematen du», gaineratu du. «Aurten diote titulu gehiago publikatu direla eta automatikoki albiste onaren sinbolo da, eta nik diot ezetz. Gertatzen dena da liburuaren merkatuak behar duela dirua mugitu eta hori liburu berriak kaleratuz egiten dela. Kantitateak baino gehiago kalitatearen aldeko apustua egiten du», bukatu du. Dena den, guztiak ados dira euskarazko edizioart erreferentzia puntu «interesantea» direla.

Aingeru Epaltza Sorginkerien liburua

1- «Sorgin istorio modernoak kontatzen da. Protagonista neskatiko bat du. Bere familiarekin eta lagun batekin Pazko Egunak pasatzera doa hiririk mendialdeko etxe zahar batera. Gogorik gabe doa bertelako opporrak nahi zituelako. Asperduratik nola alde egin berehala aurkituko du, ez bakarrik bere laguna hor dagoelako, baizik eta

bat-batean liburu bat topatuko dutelakotz eta liburu horrek halako abenturera eramanen dituelakotz.

2- Durango eromena da, baina erakusleho polita da. Urte osoan egiten dena batera ikusteko aukera izaten duzulakotz eta liburudendetara nekez aliegatzen den euskarazko liburutegietara atal bat Durangon topatzen duzulakotz.

3- Aurten euskal literaturaren urtea da Nafarroan. Ez inork horrela izendatu duela, baizik eta ez delako suntuatu inoiz hainbertze liburu. Badago aukera zabal: narraitza, saiola, kazetaritza eta narraitza arteko azpigenroa, haur literatura. Aspaldian idazten zebilen eta argitaratzen hasi den jende berria dugu. Baita izateko eskubidea badugula uste dut, azken batean gure burua erakusten ari garelakotz. Orain dela hongoi urte ez zen euskal literaturarik Nafarroan, orain dela hamar urte lau frankotiratzaile ginen, eta, orain, tropa bat biltzen ari gara.




1- Hiru olerki sail dituen bilduma da: argitik ilunerat, menditik itsasoratu bidai erdira, eta bizirik heriorat izenekoak, aski gai komunak.

2- Azken bospasei urteotan huts egin dudana hizordua, eta aurten ere ez naiz joanen. Idazleekin urtean behin mintzatzeko estakuru bat.

3- Euskal literaturari buruz denetarik bada irakurtzeko eta ongi da. Baikorki ikusten dut Nafarroakoa, eta orokorki beste eskualde-

Itxaro Borda Orain

kin dantza gantzteak falta dira. Emazteak ez dute denborarik hartu. Ez dute bereziki inportatzea duten bertatea: beti adate haurren edo lagunen kezkaren gaia da aitzinerako. Uste dut biziki inportatzea emakumeak izateko batean. Da errealtateak ikusmolde bat eta hori ankamotz izaten ahal da.



Isidro Rikarte Desioen hiria

1- Izenik gabeko hiriti kokatuak dauden bi narrazio osatzen du liburua, desioen hiria dena. Funtsuaren istoria da. Lehenengoa da Ramonunt andrearen istoria: gizon jaiotzaren auzan nahi duen pertsona baten bidea. Bestea da Luis Kortak, badu erlazio batekin baina maitemintzen da egun bateko iragarkiarene bidez existitzen den beste pertsona batekin, eta uzten duela den bizi-modua desio horren truke.


2- Ez nago ohituta horrelako handietara joatea. Normalean liburutegietara joaten naiz erositer eta egia esadut gehiegi ezagutzen.

3- Euskal literatura eusko guztiok osatzen dugun komunitatearen txikia da. Zorionez gazte asko ari diren poesian zein narraitiban, eta esperantandiko mugimendua sumatzen da. Batek ere, pentsatuz edozein literatura ikusuntz komunitatearen islada eta harekoea izaten dela neurrian eta kalitate horrek ez du esan nahi euskal literaturaren sortuko ez denik Indurain bat baina hitz komunitatea txikia da herri txikiak. Horrek ez gaitu lotsatu behar, baina errealtate bat onartu eta horretan lan egiten dut oso beharrezkoa dela euskal literatura, hau da, itzulpenaren bidezkaraz jaso ahal dugun literatura. Geta itzulpen gehiago egitea funtsezkoa da.

Uztaren protagonistak mintzo

- 1. Zer kontatzen du liburuak?
- 2. Zer da Durangoko Azoka zuretzako?
- 3. Nola ikusten duzu euskal literaturaren egoera Nafarroan?

Juanjo Olasagarre Mandelaren Afrika



JOXE LACALLE

1- Hego Afrikara egin nuen bidaiaren oinarritua dago. Paisaiaz gainera, hango errealtate soziala islatzen saiatu naiz.

2- Ustezko euskal literaturaren azoka da. Zerbaiten gunea izan nahi duen bazterreko azoka da.

3- Euskal literaturarekin arazoak ditut ez dakidalako noraino puzean ditugun gure istoriak. Uste du dagoen nahasketari nahasketa gehiago eragiten diodala, liburuak argitaratzen ditudan heinean.

Jon Alonso Camembert helburu



XOLOSE SIMA

1- Toulouse-Lautrec-i beti egiten zaizkion kritiken errepaso bat da. Kritikaren kritika, nolabait esanda. Orain dela ia ehun urte hil zen eta kritika ofizialak us-te zuen ez zela batere ona. Aldiz, bere aldekoak zirenak hilda gero kritika txar hori berrikusten eta garbitu nahian ibili ziren. Orduan hasten den lerro kritiko horren berrikusketa bat egiten dut.

2- Bestela urtean zehar ikusten ez duzun hainbat jendearik egoteko aukera eta tokia.

3- Literatura nola dagoen esatean ikusi behar da zertaz ari garen. Idazleek, obrez, irakurleek, salmentez... Uste dut hobetzen ari dela. Gero eta gauza gehiago eta hobetagoak daude, baina oraindik ere bestelako ahulezia eta huts handiak daude.

Pello Lizarralde Un ange passe



LUIS AZANZA

1- Giroak, tonuak eta gaiak lotutako lau narrazio dira. Oinazea eta heriotza dira errelato horien gainean daudenak.

2- Erromeria pagano bat iruditzen zait. Oso lotura gutxi du irakurzaletasunarekin, eta ez du zirikarik literaturazaleasunarekin.

3- Iruditzen zait kalitatezko gauzak gero eta gutxiago publikatzen direla. Irakurle naizen aldetik liburu asko nahi nituzke eta gutxi aurkitzen ditut. Krisialdi latza dagoela esanen nuke. Nafarroan beti bezala. Mantentzen da, eta ez da gutxi, baina ez da jende gazterik. Emakumerik ez da batere, eta horrek kezkatzen nau.

Patxi Zabaleta Errolanen harria



LUIS AZANZA

1- «Nafarroako Erresuma sortzeraz zegoen kokatzen da istorioa. Orreagako lehendabiziko gudaldia-

2- Erromeria kultural bat da. 3- Ongi. Batez ere asko egiten ari delako. Euskal literatura euskaraz egiten dena denez gero eta irakurle-goa ere hazitzen doanez

gero, aterako da garaiarekin gauza onik. Ateratzen ari diren artean gauza interesgarriak badaude. Askotan kritikariak ohartzeko diren moduan eta neurrian, zeren beste hutsune askoren artean kritikarien hutsune ikaragarria daukagu.

Patziku Perurena Etorrerakoak



OSKAR MONTERO

1- Artikulu bilduma da. Orain arte Gipuzkoa aldeko literatur eta kazetaritza giroarekin lotuta egon naiz eta artikulu horiek denak *El Diario Vasco*-ko euskal orrialdean argitaratuak dira.

2- Durango urte guztian euskararen inguruan montatzen den pestakizun handia da. Euskararen munduko azoka handi bat da, kulturarekin zerikusirik ez duena. Euskararen inguruan ematen diren mila topiko horietatik aspertuta rago. Euskara ikusi nahi nuke egunerokoan uzartua. Euskararen erreibindikazioak bizio bat sortzen du, euskara hobby bezala hartzea. Durango ez da hori baino badu kutsu hori.

3- Mundu horretatik aparte ikusten dut nire mundua. Euskal literaturak ez du berezitasunik Nafarroan. Oro har, nerone barruan naizela, mediokre xamarra iruditzen zait. Nafarroako euskal idazleen artean gozatu dudana Gil Bera da. Badaude erdaratik datozen euskal literatoak eta horiekin ez dut gozatzen.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Burunda-Arañazko euskara

«Gauza jakina da Burunda-Arañazko euskara kezka iturri izan dela euskalariendako sailkatze orduan; historian ere, gutxi izan dira ibar honek eman dituen euskal idazleak, eta dudarik ez da, afera linguistikoa konpontze nahia, eragile ezin hobea izan dela lehenbiziko testu idatziak ager zitezen»



Bonapartek bere zortzi euskalkien karta ondu zuenean ez zituen muga guztiak segurtamen osoz ezarri, eta zenbait bazterretan, zirt edo zart egin beharrean, le- rro lodi beltza nahiago izan zuen hutsean utzi baino. Halandaxe gertatu zitzaion Baztanen, eta halaxe gertatu zitzaion Sakanako mendebaldean. Jada aurretikago Campionen testigantzak jaso zituen; iruñarraren ustez handisko zen Burundako hizkerak zuen bizkaierareki- ko zorra, eta horrelaxe aitortu zuen Orreagako testuan *Orreaga (Roncesvalles): Balada escrita en el dialecto guipuzcoano y acompañada de versiones a los dialectos vizcaínos, labortano y suletino y de diez y ocho variedades dialectales de la región bascongada de Nabarra desde Olazagutia hasta Roncal*, Iruñea, Joaquín Lorda, 1890-. Honetan Sakanako hiru hizkeren aldaerak sarrarazi zituen, hala nola, Olatzagutia, Dorrau eta Arbizukoa. Lehen- biziko bien gainean, Burunda eta Ergoien gainean alegia, bizkaierarekin arras lotuak zeudela esan zuen: «*El dialecto del valle de Ergoyena, así como el de Olazagutia, aunque con carácter menos marcado, debe ser considerado como una remificación del vizcaíno*».

Edozein modutan, Bonaparte ez zegoen guztiz ados Campionen aburuarekin, eta Burunda zein Ergoien-Arañaz aldeko euskara gipuzke- rarekin lotuago zegoela baie- tatu zuen, bere mapan argi geratu zenez. 1881.ean *Eus- kara* aldizkarian Campione- berak gazteleratua agertu zuen artikulua batean Sakanatik igarotzerakoan jasotako- berri eman zigun. 1857.eko urriaren 21ean Bakaikun izan zen, eta hantxe bertako sei pertsonak elkarrizketatu zituen. Ahotik bildu berriez

gain bazituen itzultako tes- tuak ere, eta langai guztiekin gipuzkera eta bizkaiera dia- lektoekin erkaketa ezarri ostean, ezagun da ateratako ondorioa:


«Yo pienso que el bascuence de Olazagutia, así como el de toda la Burunda y del valle de Ergoyena, según lo que acabo de decir acerca de las terminaciones y del vocabulario de Bakaicoa y de Urdiain, debe ser considerado como un subdialecto guipuzcoano cuyo nombre propongo sea el de guipuzcoano de Navarra. Lo mismo sucede con el de Echarri-Aranaz, del que un catecismo muy bien hecho que poseo no me permite abrigar duda alguna».

Esandakoaren arabera, aski argi geratzen da Sakanako hizkerak kezka iturri izan direla euskalariatzat. Honek erraztu du testuen agerpena, alabaina, helburu linguistiko- ak ez du lagundu maila lite- rarioak gara zitezkeen tes- tuak ager zitezen. Campione- k argitara emaniko iraulketak, esaterako, akronimoen bitar- tez agertu ziren bakarrik, J.M. Olatzagutiako testuaren kasurako, M.L. Dorraukore- nerako, eta B.A.G. Arbizuko- renerako. Gehiagorik ez daki- gu. Pentsa daiteke J.M. akronimoa Olatzagutiako erretorea zen J. Mugika jauna zitekeela. Hartaz, jakin bada- kigu euskaraz predikatu zuela 1889. eta 1890.

urteetan Aralarko santutegian San Migel egun berean.

Bonapartek zituen Sakanako testuak ere, ez ziren gutxi. Bizkaiko aldundiaren artxibate- gian gordetzen diren pape- ren artean Urdiaingo euska- raz tajutu Aita Gure bat badaigo, *Canticum trium pue- rorum* eta *Benedicite* testuen aldaerak Altsasuko euskera- ra, Arakil-Uhartan erabiltzen

ziren «izan» aditzeko indikati- bozko orain-aldiko formak, eta galdetegi bati Urdiain, Etxarri-Aranatz eta Arakil- Uhartan emaniko erantzunak; Nafarroako aldundiarenean Arakil-Uharteko euskararen eginiko dotrina bat; eta Gipuzkoakoan berriz, Urdiaingo euskarara eta Etxarri-Aranazkora eginiko hiru dotrina badaude -aipatu testu gehientsuenak Rosa Miren Pagolak zuzendu tal- deak eginiko Bonaparte onda- reko eskuidazkien edizioetan baditugu irakurgai jada eta zorionez-. Urdiaingoa eta Etxarriko bat esku bera ba- tek idatziak daude, Bruno Etxenikererenak hots, eta nahiz aski argi dagoen berak ez zituela sortu, ez dakigu zein neurrian kolaboratzaile- ren ikutua garrantzizkoa den: *«J'ai reçu les traductions d'Urdiain et d'Echarri-Aranaz. Elles m'ont fait le plus grand plaisir, car le travail ne peut pas être mieux fait, surtout celui d'Urdiain. Ce en peut être qu'à vous que je puis devoir la perfection de ces précieuses versions, car vous êtes seul bien pénétré du but que je recherche».* Etxeniketik 1864.eko azaroan helarazi zizkion printzeari, bere oniritzia ere emanda, eta hark dotrinek duten kali- tatea nabarmendu zuen be- reziki. Etxarriko




bigarrena, ordea, prin- tzeak zakarki errefuxa- tu zuen: «*inútil por su confusión y su poca solidez.*»

Zoritxarrez, testu hauen egileen izenak ez zaizkigu iritsi, bakarra izan ezik, eta hori, aipatu azken dotrinaren itzul- tzailea dena, Esteban Zabala alegia.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Nortasun agiri nazionala

ESTEBAN GARIBAYKOA 1533an jaio zen lustre haundiko famili oñatiar eus- kaldun batean. Espostu 1556an Arrasatera, eta larru- tan aspertuxe ondoren, Espai- nia eta Portugal guztitik hasi zuen jira, atzera sekulako paper pilarekin etxera itzuliz. Handik belaxe, 33 urte betetzerako, bukatua zeukan Espainiako lehen historia sakratutzat eza- gutzen den obra gaitza, orduko hispanista jakintsuak harri eta zur utziz.

Nafarroari buruz esaten du, Espainiako beste erreinu guztiak baino gehiago kostatzen zitzaizkion fidatzen, baina probin- tzianoak Kastillako erreinuan galduek bezala ikusten ditu: «a los Cantabros, si en armas y milicia y en las cosas navales les queda recompensa, les falta en la lengua Castellana». Aspaldiko goiasmoa, giputzena, kas- tillano garbi izan nahiarena.

Eta Nafarroaz ari dela: «su natural lengua es la Cantabra llamada comunmente Vascongada, la qual se habla mucho en el reyno, excepto en los pueblos de las fronteras de Castilla y Aragon». Eta gero dio Ximenez de Rada hizkuntza askotan jan- tzia zela «y tambien en la Nava- rra, llamada comunmente Bas- congada, la cual era su natural y materna lengua».

Nafarroako lur ondasunei buruz ari dela: «En el rio Vru- mea, y en el de Goyçqueta, que passa por Arranbide, y los mon- tes de Arano se coge muy fino oro, y a vezes en cantidad, espe- cialmente en los meses de Julio y Agosto, hasta venir los france- ses de la ciudad de Bayona a cog- erlo». Eta inguru horretan ber- tan, oraindik bizibizi dirauten Urriaide, Urriaideko Zubia (er- romanikoa) eta gisako lekuizenak datozkit gogora; eta hantxe ber- tan, urre diru faltsoa egin, eta Frantziara pasatzen zuen Ber- dabio haren bertso eta kontu ilunak.

Goazen Urumea behiti, Do- nosti aldera: «Su primitibo non-

bre Hiruçun, que en lengua Cantabra de la mesma region, quiere casi sonar, cosa de tres agujeros o entradas, como son realmente las tres entradas que esta villa tiene por mar». Beste batean ere esaten du gauza be- ra, Hiruçun izenaz eta etimolo- giaz. Eta zergatik ez izen eder hori Donostia beharrea? Er- gelkeria bat, baina...

Baina, histori eta nazio kontu sakratuz kokoteraino naukaten honetan, Antonio Garridoren «Os quiero a todos» hartatik XX kapitulu ederra leitu dut berri- ro. Zeinen kontraste ederrak! Honatx pasarte batzuk xalaha- ran euskaratuak: «Sentiera es- pañola edo dena delakoa ez da 'antivascoa'; historiografia es- pañola bera, euskaldunek sor- tua izan baita, hain zuzen. Au- rrenekoa Ximenez Radakoa be- ra izan zen, naparra eta euskal- duna, 'De rubes Hispaniae' ida- tzi zuena, eta gero Garibay bere 'Compendio Historial' sekulako- arekin, eta hauen segidore izan dira gero Menéndez Pelayo, Sánchez Albornoz eta...».

Eta aurrerago: «Euskaldu- nek, joan den hamar mendez geroztik, inolako bereiztasunik erakutsi gabe bitu dira penin- sulako beste bizilagunekin ba- tera. Euskal ilustratuak, misio- laria, gerlariak, konkistatzaile- ak, Espainia egiten aritu dira beti. Atzenaldera ordea, zenbait bereiztasun erdiastatu onartu zaizkientetik, laineza hartu dute. Izan ere, beuren arteko txoro- nek eta kaskarinenek asmatu- tako teorizazio antzuak kutsa- turik, gutietsia bezala ikusten baitute orain beren burua, no- lazpait esan, bere burua intere- santetzat jo eta kasorik egiten ez diotelako samurtzen den muti- kokorrak bezalatsu».

Eta begien bistako gauzok oraindik iraintzat hartzen di- tuen gehiengo euskañol deko- rati- bo triste batean itota bizi nai- zela ohartze hutsak, berrégura emoten dit. Bestek interesante egin zai dagoen mutikokor mainoso bat; horratx gure nor- tasan agiri nazionala.

Ziria

• Motxorrosolo •

Antologiak

GAURKOTASUNIK GABEKOAK, EZ DIRA MUNDU HONETAKOAK. AZOKA- ren atarian, zinez antologikoa zenbait erakunde publi- koen laguntzaz karrikatutako liburua. Garaztarraren testu bat apailatu dute. Gose grebata loditzen ohi zen apezaren arrastoa Etxarrenean partehartzea. Sarri ez gara gure baita- koak.

Alfonso Pascal

Historialaria

«Bianako Printzeak okerreko bidea hartu zuen»

Alfonso Pascal iruindarrak *Las razones del principe* kaleratu berri du, Bianako Printzearen bizia bildu duen liburua, Nafarroako Pedro Mariskala Fundazioarekin. Pascalen iritziz, Karlos Bianako printzeak okerreko bidea hartu zuen, politikoa beharrean kulturaz asko kezkatu zen intelektuala izan baitzen.



soslaia

ARTETAKO ETNOGRAFI MUSEO-ko egoitzan aurkeztu du bere lana Pascalek. Garai bateko egunerokotasunaren isla diren hainbat tresna eta lanabesez inguraturik, gozo aritu da mires-ten duen printzeaz mintzatzen.

■ **Nor zen Bianako Printzea?**

Bianako Karlos, Karlos III.a Noblearen iloba zen. Bere ama Nafarroako Blanca zen eta aita Juan I.a, gero Aragoiko Juan II.a izan zena. Oso gora egin zuen erregealdia izan zuen. 1421ean jaio zen Peñafiel (Valladolid), baina Nafarroan hazi eta hezi zen. Nafarroako errege izatera deitua zegoen, eta jaio bezain laster horrela jakinarazi zioten. Dena dela, heriotzak eraman zuen arte ez zuen lasaitasunik izan, aitarekin egin zuelako talka beti. Haren amak hil baino lehen ere gomendatu zion ez hartzeko Nafarroako erreinua aitaren baimenik gabe. Juan, historian *Usurpatzailea* ezizenaz ezagutzen zenaren aurka borrokan aritu zen beti hari ez zegokiolarako tronua, eta are gutxiago, Juana Enriquez, Gaztelako almirantearen alabarekin ezkondu zenean. Bizitza guztia borrokan ibili zen. Mahaian ukabilkada bat jo eta «aski da!» esatea faltatu zitzaion erregetza lortu ahal izateko.

■ **Bianako Printzearen bizia jaso duen *Las razones del principe* liburua kaleratu berri duzu. Zergatik aukeratu duzu bera?**

Bianako Printzearen pertsonaiak asko erakarri nau beti, batez ere bere alderdi humanoak. Okerreko bidea hartu zuela uste dut, erratu egin zela. Intelektuala zen eta gortean zegoen, ez zen politikaria ez maltzurkeriatan aritzen zirenetakoa, ez zuen goranahirik.

■ **Zurea, Bianako Printzearen ikuspegi pertsonala da?**

Bai, baina datu historikoen zehaztasunarekin egina. Ez dut bere buruan sartu nahi izan, baina saiatu naiz pertsonaia horri gertatu zitzaiona kontatzen, eta, nolabait, haren alde egiten. Historian oinarritu naiz, baina ikuspegi pertsonala eta humanoa jaso dut. Gainera, historialaria ez naizenez ez dut historia liburua bezala idatzi, baizik eta eleberritu. Historia eleberritua dela esan daiteke.

■ **Ezohiko printzea zen, beraz?**

Bai. Aginterako gogorik ez izateaz gain, guztien laguna zen: garaiko poetena, musikariena eta juglareena. Baina, batez ere, liburu klasikoaren itzulpenak egin zituen eta, beste erregeak ez bezala, kulturaz asko kezkatu zen. Adibidez, gaur egun Nafarroako Gobernuaren Principe de Viana kultur erakundeak haren izena darama, badago izen bereko zinema bat Iruñean, ikastetxeak ere badira... Aldiz, Juan

II.a haren aitaren izena ez da inon ageri.

■ **Juan II.a Bianako Karlosen kontrakoa zen. Nolako eragina izan zuen harengan?**

Juan eta Karlos erabat kontrakoak ziren. Juan ez zen jantzia. Batak handinahi handia zuen, besteak ez zuen batere. Juan beti maltzurkeriatan ibiltzen zen eta onura ateratzeko edozeinekin egiten zituen akordioak; printzea erabat kontrakoa zen. Horregatik uste dut lanbidez okertu egin zela. Karlos ama Blancaren eta arrebarren arima bikia zen, aita beste arrebarren (Leonorren) arima bikia zen moduan.

■ **Bizi izan zuen garairako onegia zela esan duzu. Zergatik?**

Onegia zen edozein garaitarako. Gaur egun ere arazoak izan zituzkeen. Ez zuen politikarrien ezaugarriarik eta, aldiz, errege izatera destinatua zegoen.

■ **Liburuan ez dago galtzaileen aldeko joera bat?**

Bianako Printzea ez da galtzailea. Errege izatera iritsi ez bazen ere, boterea zuen. Horren adierazgarri da Karlos printzeak zuen lagun mordoa, eta joaten zen leku guztietan esku zabalik hartzen zutela. Hil eta gero, dohatsu aitortzen saiatu ziren, eta mirariak eta faboreak eskatzera joaten zen jende asko Bianara.

■ **Zer egin zuen bere alderdi artistikoa garatzeko?**

Lan klasikoak itzuli zituen, garaiko txanponen bilduma han-

Alfonso Pascal 33 urteko iruindarrak SOS Nafarroan egiten du lan. Aurretik batez ere olerkiak idatzia, Nafarroako historiaren inguruko bigarren liburua da argitaratu berri duen hau, *Las razones del principe*. Ofizioa ez baina afizioa du Nafarroako historia. «Zirraragarria» iruditzen zaio eta ikertzeko pertsonaia asko eta erakargarriak daudela uste du.

Kaleratu duen lana egiteko, tankera guztietako historialari nafarrak begiratu ditu: Lacarra, Claveria, Del Burgo, Arturo Campion, Jimeno Jurio...

«Printzea bizi izan zenetik bostehun urte joan dira. Ikuspegi horretatik, ez dut uste egon daitekeenik interes jakinik. Ez da gauza bera Espainiako Gerra Zibilarena irakurtzea autore batean edo bestean, baina 500 urteko gertakizun batean aldeak ez dira hain handiak», dio Pascalek.

Aurretik *Historias a ramalazos* liburua kaleratu zuen Alfonso Pascalek, Iruñeko Udalaren laguntzarekin. Herrialdeko pertsonaia historiko mordoa jaso zuen lan hartan. Gerora begira, badu beste proiekturik buruan. Esate baterako, duela lau urte hil zen Angel Urrutia poeta lekunberriarren antologia bat egin nahi luke.

dia zuen eta liburutegi mardula eta aberatsa ere egin zuen.

■ **Haren garaian bada bera bezalakorik monarkien artean?**

Denetarik izan zen. Karlos II.ak, Karlos III.aren aita izan zenak, Miluzeko zubian jende ugari urkatu zuen eta bere erregealdia oso gogorra izan zen. Aldiz, Karlos III.arena oso lasaia izan zen eta Bianako Printzearen sasoiaren beaumontarren eta agramondarren arteko borrokak

izan ziren nagusi. Aragoiko eta Gaztelako erreinuekin ere hainbat arazo izan zituen. Dena den, utzi izan balote errege ona izan zen. Gizon ona zen. Beaumontarren eta agramondarren arteko istiluetan ere bere aurka ez zutela deus esan zuten bi aldeek Uxueko mendizerran sortu zen gatazka batean. Iragaiten zen toki guztietan txaloak jaso zituen eta ongi etorria egiten zioten.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

UPN Telebista

MUNDUKO HERRI GUZTIEK DUTE EUREN burujabetasunaz erabakitze eskubidea. Hilarran zizelkatzeko moduko esaldia da. Kroaziarren manerak ikusi, ordea, eta, niri, behintzat, okaztagarriak iduritzen zaizkit. Egia erran, kroaziarren gainean dudan iritzia goitik behera baldintzatu du gure herrialdean sustraiak bota zituen muturreko gizon batek. Muturreko erlijioan, Opus Deikoa; muturrekoa politikagintzan, eskuin aldekoa, jakina; nazien laguna, Francok aterpe eman ziona. Urte sail luzetan, Kordobillako egunkariak hauspotu zituen hark idatzitako prediku zornetuak.

Horregeatik, behar bada, nire begietarako holakoxeak dira kroaziar kartso horiek: fundamentalista hutsak, nazien garaiko ikurak eta doinuak harropuz zabaltzen dituztenak, bertze herrien zanpatzaille, bere ustezko, harranditsu eta handinahi, Jainkoaren izenean haika tiro jotzeko prest daudenak.

Adierazpen askatasuna. Hilarran zizelkatzeko moduko esaldia da. Komunikabide batzuen manerak ikusi, ordea, eta niri, behintzat, okaztagarriak iduritzen zaizkit. Egia erran, Canal 4ren gainean dudan iritzia goitik behera baldintzatu du ikusteak UPNkoen telebista dela. Ez dute batere altxatzen hori, eta harro haizeratzen dute egunero nafar eskuindarren prediku kamusua eta herdoildua.

Sanzek Telepamplona Nafarroako Telebista bihurtu nahi izan du. Dirua sartu dute eta telebista autonomikoaren maila eman nahi izan diote, legeak saihestuz. Orain, Sustapen Ministerioak agindu die ez erabiltzeko Nafarroako Kanale Autonomikoari dagokion frekuentzia, baina ez die oztoporik paratu Iruñerrian aritzeko. Hala ere, Gurutzada saildua antolatu dute, behin eta berri, men eginez astean zazpi egunez oinperatzen duten adierazpen askatasunari. Nafarroari eraso egin zaiolakoan. Hortaz landara, elkartasuna ere eskatu dute, haiek, sekula santan, elkartasun izpirik nimenioena ere agertu ez dutenean. Eta nik gauza osasungarri bat egiten dut, bederen, hots, Canal 4 pantailatik ezabatu, zapping egiterakoan, behintzat, zabarkeriaren irudia etxe txoko minean sar ez dakidan.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Erratzu:** 'XXI mendeko akordioa: Bai euskarari' kanpainaren barruan Ruper Ordorikak kontzertua emanen dute etzi, 22:00etan, elkartean.

► **Izaba:** 'XXI mendeko akordioa: Bai euskarari' kanpainaren baitan Drindots taldearekin gaupasa izanen da frontoian gaueko 1:00etatik aitzina.

► **Iruñe:** Oskorrik eta Kukubiltxok *Marijane kanta* zan ikuskizuna eskainiko dute etzi, polikiroldegian, 18:00etan.

► **Lizarr:** Jose Menesek kontzertu-errezitaldia eskainiko du bihar, 20:00etan, Gustavo de Maeztu Museon.

► **Muruzabal:** Cuarteto Sarasate ganbara taldeak kontzertua eskainiko du etzi, 11:45etan, elizan.

► **Barañain:** Amalur Orkestraren emanaldia izanen da datorren ostegunean 20:30etan, Santa Maria elizan.

ERAKUSKETAK

► **Lizarr:** Alfredo Diaz de Cerioren 'Visiones del paisaje navarro' margo erakuketa ikusteko aukera dago gaurtik heldu den ilbeltzaren 31a arte.

ANTZERKIA

► **Iruñe:** Trokolo antzerki taldeak *Liburukariak* lana aurkeztuko du datorren asteartean, 20:00etan, Kultur Etxean.

BESTELAKOAK

► **Iruñe:** Mendirako edo eskia-tzera joateko erosi baina erabiltzen ez duzun materialari etekina atera nahi badiozu Nafarroako Kirol Elkarteak merkatua antolatu du datorren asteazken, ostegun eta ostiralean. Arratsaldeko

19:00etatik 21:30ak arte egonen da zabalik. Interesatuok deitu ondoko teledonora: 948-22-43-24.

► **Iruñe:** Nafarroako Gobernua-
ren Hezkuntza sailak lau lehiaketa antolatu ditu 1998-99 ikasturterako: euskal antzerkigintza; literatura; etnologia eta dialektologia; eta irakurmena eta deklamazioa. Deialdia ikastetxe publiko eta intunpeko pribatuetan Lehen Hezkuntzako (Goi zikoa), Derrigorrezko Bigarren Hezkun-

tza eta Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua da eta lehiaketa bakoitzak ezaugarri jakin batzuk izateaz gain, sari ezberdinak izanen ditu. Parte hartu nahi duenak, Hezkuntza sailera jo besterik ez du.

► **Iruñe:** Jon Alonso idazle iruindarrak *Camembert helburu* hitzaldia eskainiko du heldu den ostegunean Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 18:00etan, 106 gelan.

► **Barañain:** 'XXI mendeko akordioa: Bai euskarari' kanpainaren baitan, Pako Aristi eta Mikel Markezen *Tribuaren hitz galduak* emanaldia izanen da datorren ostiralean, hilak 11, 20:00etan, Kaio tabernan.


► **Erratzu:** Bertso afaria eginen da datorren astelehenean, 21:30etan Ordoki jatetxean. Bertsoatan ariko dira Mañu-korta, Millan Telleria eta Sebastian Lizaso.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Metafisika

Zure botika



Metafisika Konplet

Heriotzari

gauza

batekin

ongi

natzaio

kontentu:

aberatsari

diruagatik

ez ohi dio

barkatu.